

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2018KO AZAROAREN 30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILERAREN AKTA

Kontseiluburuak deituta, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, 2018ko azaroaren 30ean, 13:00ean, modu ez-presentzialean. Honako hauek bertaratu dira eta hau izan da gai-zerrenda:

BILERARA DEITUTAKOAK:

KONTSEILUBURUA

Jon Darpón Sierra jauna

KONTSEILUKIDEAK:

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea
Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

IDAZKARIA:

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Kontseiluaren bilerarako deialdia eta bertaratzea bermatzeko, deialdia bera bidaltzen zaie, posta elektronikoz, kide guztiei; horrekin batera, gainera, honako hauek ere bidaltzen zaizkie: gai-zerrenda, proposatutako erabakiak eta kide bakoitzak proposatu diren edukiei eman dien erantzuna (hau ere posta elektronikoz jaso da). Horrela ezartzen da urriaren 1eko 40/2015 Legearen (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) 17.1 artikuluan. Izan ere, artikulua horretan honako hau ezartzen da:

"1. Kide anitzeko organo guztiak eratzeko eta organo horiek bilerak deitu eta egiteko eta erabakiak hartu eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik jardun ahalko da, salbu eta beren barne-erregelamenduan kontrakoa espresuki eta salbuespen gisa jasotzen bada.

Kide anitzeko organoek urrutitik egindako bilkuretan, kideak toki desberdinetan egon ahalko dira, betiere baliabide elektronikoen bidez (halakotzat jotzen dira bide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak ere) bermatzen bada kideen edo kideak ordeztu dituzten pertsonen

identitatea, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egongo direla. Besteak beste, baliabide elektroniko baliadunak izango dira, esaterako, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.”

GAI-ZERRENDA

LEHENA.- ERABAKIA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko zuzendari nagusia kargutik kentzeko 2018ko azaroaren 15eko erabakia aldatzen duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautu zuen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2c) artikuluan xedatu zenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Mota horretako akatsak antzeman dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2018ko azaroaren 15ean hartu zuen erabakian, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko zuzendari nagusia kargutik kentzen duen horretan (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 225. zk., 2018ko azaroaren 22an), eta zuzendu egingo dira.

Honako hau jartzen duen tokian:

“Lehenengoa.- María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren kargutik kentzea, eta izendapenetik hona egindako lanagatik eskerrak ematea.”

Honako hau jarri behar da:


“Lehenengoa.- María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren kargutik kentzea, hark eskatu bezala, eta izendapenetik hona egindako lanagatik eskerrak ematea.”

BIGARRENA.- Eskaerak eta galderak

Ez dago beste gairik aztertzeko, eta beraz, bilera amaitu da 2018ko azaroaren 30ean, 13:30ean.



**Izpta.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Izpta.: Jon DARPÓN SIERRA
KONTSEILUBURUA**